Espediente-zenbakia: 2022027

Kontratazioaren helburua: “Bizitza-luzeraren industria eta dibertsifikazio-aukerak EAEn” azterlana egiteko zerbitzua ematea.

Dokumentua: Preskripzio teknikoen plegua.

1. SARRERA

Euskadik ikerketaren eta berrikuntzaren alde egiten duen apustu estrategikoa erakusten du “2030rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak” (ZTBP 2030), eta trantsizio hirukoitza hartzen du barne: teknologiko-digitala, energetiko-klimatikoa eta soziala-sanitarioa. Euskadi Basque Country 2030 Agendaren parte da; Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin duen konpromisoa jasotzen du azken horrek. Marko orokor horretan, ZTBP 2030 da Eusko Jaurlaritzak Euskadiko I+G+b politika sustatzeko duen oinarrizko tresna, euskal ekonomiak bere lehiakortasuna hobetu eta hazkundearen bide jasangarri batetik aurrera egin dezan, Euskadi digital, berde eta inklusibo baterako trantsizioa azkartuz.

Gainera, osasunaren eta zaintzaren arloa, trantsizio digital eta ekologikoarekin batera, Next Generation EU programaren inbertsioaren jomugan dago.

ZTBP 2030 planak bilakaera bat izan du eta aurreko “RIS3 Euskadi” espezializazio adimenduneko estrategia du ardatz, RIS3 estrategia berriaren oinarriak txertatuta, non osasunaren eta zahartzearen erronkek garrantzi berezia hartu duten. Hala, Osasun Pertsonalizatua da hiru arlo estrategikoetako bat. Arlo horrek barne hartzen du “Goi mailako teknologia erabiltzen duen, I+G+b arloan trinkoa den, nazioarteko merkatuan lehiatzen den eta sektoreari egokitutako finantza-soluzioak eskatzen dituen enpresa-ehunaren hazkundea” erronka. Testuinguru horretan, EAEko industria biosanitarioaren gaineko lehenengo Panorama Txostena prestatu du SPRIk, industria horren tamainaren, egituraren eta denboran zehar izandako bilakaeraren neurri fidagarria izateko helburuz, eta haren hazkunderako laguntza eraginkorrak diseinatzeko helburuz.

Trantsizioei erantzuna ematearen ildotik, *Zeharkako Ekimen Traktoreak* kontzeptua txertatu du ZTBP 2030 planak. Tresna horrek RIS3 arloen arteko elkarlana sustatzen du arlo estrategiko zehatz batzuetan, eta aurrez aipatu ditugun hiru trantsizioekin lotutako erronkarik handienetako batzuei soluzio konkretuak emateko modu berri bat ordezkatzen du.

Hain zuzen ere, hasiera batean identifikatutako hiru *Zeharkako Ekimen Traktoreetako* bat Zahartze Osasuntsua da. Aurreko ZTBP 2020-RIS3 planaren barruko berariazko Lantaldean ere garatu zen arlo hori, duen garrantzia dela eta: biztanleriaren zahartzea, erronka bat izateaz gain, garapen ekonomiko eta sozialerako aukera bat ere bada.

ZTBP 2030 planak erronken lau kategoria identifikatu ditu Zahartze Osasuntsua ekimenaren barruan: zientzia arlokoak; osasun arlokoak; gizarte arlokoak; eta enpresa eta instituzioen arlokoak. Zahartze Osasuntsuaren Zeharkako Ekimen Traktoreak berak erronka gisa identifikatu du bizi-itxaropen osasuntsua luzatzea; adinekoen artean autonomia pertsonala eta ahalik eta bizi-kalitate onena izatea ahalbidetuko luke bizi-itxaropen osasuntsuak. Halaber, 2030erako helburu orokor gisa ezarri du desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena 5 urte luzatzea. Zehaztutako bost erronka espezifikoen artean dago “Zahartzearekin lotutako aukerak aprobetxatuko dituen ekonomia bultzatzea (Silver Economy)”. Erronka horri lotuta bi helburu espezifiko identifikatu dira:

- Zaintza soziosanitarioari, ongizateari eta aisialdiari lotutako negozio-eredu jasangarri berriak garatzea; eta
- Ekintzailetza aktibatzea eta zahartzearekin lotuta dagoen industria-ehuna garatzea.

Biztanleriaren zahartzea kontuan hartzea eta zahartze osasuntsua helburu gisa ezartzea ez da gure demografiak eragindako tokiko joera soila, munduko lekurik gehienetan ikusten den joera baizik. Hamar urte baino gehiago dira “zilarrezko merkatuaren” potentziala identifikatu zutenetik, eta banakako herrialdeek zein Europar Batasunak haien lehentasunetako bat bilakatu dute “Silver Economy” delakoa. Europak honela definitzen du “Silver Economy” edo zilarrezko ekonomia: “50

urtetik gorako pertsonen beharrei erantzuten dieten jarduera ekonomiko guztien batura; barne hartzen ditu zuzenean erosten dituzten produktuak eta zerbitzuak, baita sortzen duten jarduera ekonomikoa ere". Europaren arabera, ekonomia horrek herrialdeen BPGa handitzen du eta enplegua sortzen du, adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetu izanari esker: 6,4 bilioi euroko irismena eta 88 milioi lanpostu (lanbide berriak barne) 2025erako.

Orain dela gutxi, "Bizitza-luzeraren industria" erabiltzen hasi dira segmentu anitzak –beste batzuen artean, gerozientzia, biomedikuntza, elikadura eta finantzak aipatzen dira– barne hartzen dituen makrosektore bat identifikatzeko. Makrosektore horretan lan egiten duten enpresek behar berriak asetzeko soluzioak garatzen dituzte, edo adineko pertsonei egokitutako zerbitzuak eskaintzen dituzte. Adineko pertsonek ez dute talde homogeneo bat osatzen. Hedaduraz, zilarrezko ekonomiaz harago, bizitza-luzeraren ekonomiari ere arreta eskaintzen ari dira.

Bizitza-luzeraren industriarekin lotuta, AgeTech terminoa ere agertu da, bizitza-luzeraren eta teknologiaren arteko intersekzioa deskribatzeko modurik onena delako. Adinekoen bizitza hobetzea helburu duen teknologiari (teknologien multzoari) deitzen diogu AgeTech, eta adinekoen beharrei eta nahiei erantzuteko dago diseinatuta, adinekoak diseinu-prozesuan txertatuz. AgeTech terminoak baditu beste sinonimo batzuk (ElderTech, GeronTech, etab.). Teknologia asko hartzen ditu barne, baina teknologia digitala giltzarria da garapen horietan.

Euskadin, arlo honen (zahartzea, zilarrezko ekonomia, bizitza-luzera, Agetech) inguruko enpresa-jarduera modu esplizituagoan ari da azaleratzen azken urteetan. SPRIn, hazkunde hori I+G proiektuen eskaeren bidez ari gara hautematen azken urteetan, baita sortu berri diren enpresa edo negozio-lerroei emandako laguntzen bidez ere. Kasu gehienetan, teknologia digitalari, adimen artifizialari, machine learningari, robotikari... oso lotuta dago hori guztia, baina baita garapen zientifiko eta biomedikoei eta osasun-produktuen garapenari lotuta ere. EAEko industria biosanitarioaren gaineko Panorama Txostena egiteak aukera eman du, gainera, osasun digitalaren azpisektorea identifikatzeko (Health Teck osasun-teknologien sektorearen barruan). Azpisektore horrek barne hartzen ditu merkatu sanitarioko eta soziosanitarioko enpresak, baita sektore biofarmazeutikokoak ere; sektore horretan, zahartzarekin lotutako gaixotasunetara bideratutako ildoak garatzen dituzte hainbat enpresak.

Beste instituzio batzuk, esaterako Foru Aldundiak, zahartzeari begirako estrategiak garatzen ari dira, eta modu esplizituan bultzatzen dituzte berrikuntza eta hazkunde ekonomikoa (zaintza-alderdiez harago). Bestetik, industria horren aitorpena eta aukera berrien aprobetxamendua bultzatzen saiatzen ari diren enpresa taldeak daude, sektore anitzetakoak. Baina ez dago horiek garatzeko klusterrik edo elkarterik, eta ez dago ezagutza egituraturik EAEko egungo egoera orokorraren gainean, ezta negozioak dibertsifikatzearen bidez arlo honetan hazteko gaitasunaren gainean ere.

Garapen berritzaileen helburu orokor gisa zahartze osasuntsua izateak hainbat gaitasun eta sektore ekonomiko hartzen ditu barne. Osasun arloaz gain, arlo soziosanitarioa da errazen ikus daitekeenetako bat. Dena den, arlo soziosanitarioari buruzko ezagutza zatituta dago EAEn, eta oraindik ere mugatua da enpresen garapenaren ikuspegitik. Baina, etengabeko bilakaera teknologikoari eta sozialari esker, aukera berriak garatzen ari dira hainbat sektoretan dibertsifikatzen duten enpresentzat. Era berean, enpresa berriak sortzen ari dira, zahartzearekin edo adineko pertsonekin lotutako merkatu honetara berariaz zuzenduak.

Horren guztiaren ondorioz, EAEko zilarrezko ekonomia eta bizitza-luzeraren industriatzat har litekeen guztia deskribatzeko lan bat egiteko beharra dago. Era berean, makrosektore honen hazkunde-aurreikuspenak kontuan hartuta, hainbat sektorek eta enpresak dituzten dibertsifikazio-aukerak aprobetxatzeko gaitasun erreala aztertu behar da. Eta dagoeneko EAEn agertzen ari diren espezializazio arloei sendotzen lagundu behar zaie.

2. KONTRATAZIOAREN HELBURUA

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako (aurrerantzean, **SPRI**) Teknologia, Berrikuntza eta Jasangarritasun Sailak, Trantsizio Estrategikoen Sailaren bidez, "Bizitza-luzeraren industria eta dibertsifikazio-aukerak EAEn" azterlana egiteko zerbitzua kontratatu behar du. Horretarako, Preskripzio Teknikoen Plegu honetako hurrengo atalean jasota dauden lanak egin beharko dira.

Kontratuaren xede diren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan egingo dira.

3. EGINGO DIREN JARDUEREN HELBURUAK ETA DESKRIBAPENA

Helburuak

Zilarrezko ekonomia eta/edo bizitza-luzeraren industria bultzatzeko informazio estrategikoa eta erreferentzia-esparru bat emango dituen azterlan bat egitea da lizitazioaren helburu orokorra. Era berean, EAEko sektore ekonomiko anitzetan oinarrituta, merkatu honen aukerak ustiatzeko aukera ere emango du azterlanak.

Lan hori lagungarria izango da Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarentzat, besterik ezean, hausnartzeko, haren tresnen bidez enpresen ekimenei eta I+G+b arloko ekimenei laguntza emateko, eta sektore berri honen hazkunde ekonomikoari eusteko. Halaber, Zahartze Osasuntsuari buruzko Zeharkako Ekimen Traktoreari lagunduko dio; SPRIk eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak parte hartzen dute bertan.

ZTBP 2030-RIS3 Euskadi markoan, SPRIren Trantsizio Estrategikoen Sailak sostengua ematen die estrategien eta ekimenen jarraipenari, baita Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eskumenekoak diren politika eta tresnei ere. Horien artean daude Zeharkako Ekimen Traktoreekin lotutakoak, Industria Adimendunaren arloko Osasun Lantaldeari lotutakoak, eta SPRIren lan-ardatza den trantsizio soziosanitarioari lotutakoak.

Panorama Biosanitarioaren (ez du barne hartzen arlo soziosanitarioa, ezta ongizatea helburu duten beste arlo batzuk ere) osagarria da azterlana, eta hainbat jarduerarekiko zeharkakoa da, hala nola I+G+b sustatzeko programak, nazioartekotzea, ekintzailetza, BIND 4.0, BDIH, edo klusterren politika.

Azterlana oinarri bat da, kontzeptualki berria den makroindustria bati laguntzea errazteko; makroindustria hori lotuta dago EAEko industria biosanitarioarekin eta beste sektore ekonomiko batzuekin. Zehazki, hori betetzeko zereginek bi helburu partzial izan behar dituzte:

1. Gaur egun bizitza-luzeraren EAEko industriaren parte diren enpresen eta eragileen mapa egitea, ikuspegi osoa izateko eta hainbat erakunderentzat tresna erabilgarria izan dadin (enpresentzat, klusterrentzat, instituzioentzat, bazkide teknologikoentzat, etab.).
2. Adineko pertsonen merkatua edo zahartzearekin lotutako merkatua aintzat hartuta hainbat sektore ekonomikok eta enpresak haien negozioak dibertsifikatzeko dituzten aukerak aztertzea, dibertsifikazio hori errazteko laguntza-neurriak, I+G+b arloan oinarrituak, hobeto erabili ahal izateko (edo garatzeko).

Kontratuaren xede diren jarduerak

Helburu partzialei ekiteko, hainbat zeregin eta jarduera egin behar dira:

- EAEko bizitza-luzeraren industria eta/edo zilarrezko ekonomia zerk osatzen duen definitzea, eta hura osatzen duten sektoreak, azpisektoreak edo jarduerak egituratzea edo bistaratzea,

EAEko errealitatearen arabera eta beste testuinguru geografiko batzuen arabera, eta nazioarteko ikuspegiarekin.

- Une honetan industria horretan aktibotzat jo daitezkeen enpresak identifikatzea. Horretarako, kontuan hartu behar da beste erakunde batzuek emandako informazioa, eta SPRIk eskura dagoen behar adina informazio emango du. Gainera, hirugarrenen datuak emango ditu, egin daitekeenean.
- Sektore ekonomikoek (gutxienez 5) dibertsifikatzeko duten potentziala aztertzea. Horretarako *silver* produktuen eta zerbitzuen benchmarking ariketa bat egin behar da, eta ekosistemako enpresak eta eragileak alderatu behar dira.

Kontratuaren irismena

Kontratu honek barne hartzen ditu aurreko atalean adierazitako lana egin ahal izateko beharrezkoak diren jarduera eta zeregin guztiak.

"Bizitza-luzeraren industria eta dibertsifikazio-aukerak EAEn" azterlanak honako dokumentuak/entregagaiak barne hatuko ditu, gutxienez.

1. **I. ENTREGAGAIA: Bizitza-luzeraren EAEko industriaren mapa.** Zehazten den egiturari eta amaierako irudiari kalterik egin gabe, eta dagozkion justifikazio arrazoituak emanda, honakoak erakutsiko ditu mapak:
    a) Industriaren osaera, hura osatzen duten arlo edo azpisektoreekin; eta
    b) Industria horretan aktibotzat identifikatu diren EAEko enpresak.
2. **II. ENTREGAGAIA: Dibertsifikatzeko potentziala.** Elkarren artean lotutako hiru dokumentu:
    a) dibertsifikatzeko potentzial handiena duten bost (gutxienez) sektore ekonomikoen proposamen arrazoitua;
    b) *Silver economy* arloko benchmarking analisia (produktuak eta zerbitzuak) eta joerak bi herrialdetan (aukera arrazoituta); eta
    c) amaierako txostena, honakoak jasoko dituena:
        - EAEko industria-sektoreek zilarrezko ekonomiari/bizitza-luzeraren ekonomiari egokitzeko duten potentzialaren analisia.
        - zilarrezko merkaturako trantsizioa bultzatzeko identifikatutako erronkak.

Eskaintzailearen memoria teknikoaren gutxieneko edukiak

Lizitazio honetarako eskaintzek memoria tekniko bat jaso beharko dute, jarraian azalduko ditugun gutxieneko edukiekin. Eduki horiek aintzat hartuko dira ezarritako balorazio-irizpideak ebaluatzean.

Eskaintzaileak proposatutako proiektuaren Plangintza deskribatuko du Memoria teknikoak; plangintza hori zer fasetan garatuko den adieraziko da, eta kronograma baten bidez irudikatuko dira jarduerak eta horiek ezartzeko epeak, horien arteko harremana, paraleloan egin beharreko zereginak eta bide kritikoa.

Proposatutako fase bakoitzerako, honakoa zehaztuko da:

- Lan-metodologia eta proposatutako operatiboa.
- Hasiera- eta amaiera-data.

- Kategoria profesionaletako bakoitzean erabiliko diren giza baliabideak, ordu kopurutan.
- Entregagaiak eta/edo fase bakoitzeko emaitzak: edukien aurkibidea.
- Erabilitako metodologian edo entregagaien kalitatean eta edukietan egindako aldaketen iradokizunak edo gehikuntzak, Pleguan ezarritakoarekin alderatuta.

Plangintzak, gutxienez, fase hauek jasoko ditu, eta fase bakoitzaren irismena:

1. Planifikazioa eta alderdi jakinak zehazteko bilera, zereginak, entregagaiak, arduradunak eta epeak errepasatzeko; eta lanaren gidaritza ezartzeko, aldizkako jarraipen-bileren bitartez.
2. Informazioa biltzea eta bizitza-luzeraren/zilarrezko ekonomiaren industriaren mapa egitea. Eskaintzaren egileak eskaintzan bertan zehaztuko du zer irizpide proposatuko dituen industriaren perimetroa mugatzeko, eta industria horretan aktibo dauden enpresak identifikatzeko.
3. EAEn dibertsifikatzeko potentzial handiena duten sektore ekonomikoak aukeratzea.
4. Aukeratutako sektoreetan zilarrezko ekonomiaren joerak eta aukerak aztertzea.
5. EAEko enpresek bizitza-luzeraren/silver ecomomy sektorera bideratzeko duten potentziala eta aurrean dituzten erronkak aztertzea.

Lana amaitzeko (osagai guztiak) epemuga 2023/10/15 izango da, nahiz eta atal bakoitza epe desberdinetan bukatu ahal izango den.

4. LANTALDEA ETA ZERBITZUA

Proiektuari esleitutako lantaldeak zerbitzuaren beharretara egokitu beharko du; horretarako, eskaintzaileak zeregin bakoitza egiteko baliabide egokiak izendatu beharko ditu. Taldeko kideek kualifikazioa eta esperientzia frogatu beharko dute.

Kontratua behar bezala egikaritzeko, beharrezkotzat jotzen da profil hauek betetzen dituen lantalde bat izatea:

- Proiektuaren arduraduna, gutxienez 10 urteko esperientzia duena.
- Aholkulari senior espezialistak, gutxienez 5 urteko esperientzia dutenak.
- Teknikariak, gutxienez 3 urteko esperientzia dutenak.

Zerbitzuaren zati bat gaztelaniaz eta ingelesez emango duela bermatu behar du hornitzaileak. Hortaz, proposatutako lantaldeko kide batek, gutxienez, ingeleseko C1 maila (gutxienez) duela ziurtatu beharko du.

Langileen ordezkapena SPRIren Trantsizio Estrategikoen Sailak baimendu beharko du, eta aurretik ordezkoen *curriculumak* arrazoitu eta aurkeztu beharko ditu.

Gainera, kontratatutako zerbitzua modu egokian egikaritu ahal izateko, beharrezkoa izanez gero, eta behar puntualen arabera, proiektuan langile gehiago txertatzeko konpromisoa du esleipendunak.

SPRIren Trantsizio Estrategikoen Sailak zuzenean gainbegiratuko du proiektuko lantaldeak egindako lana. Lanak esleipendunen enpresetan egingo dira, jarraipen-bilerak edo beste noizean behineko zeregin batzuk salbu.

Taldeko langileak esleipendun enpresaren mendekoak izango dira. Inolako kasutan ere ez dute izango Eusko Jaurlaritzarekiko, SPRIrekiko eta/edo haien parte diren elkarteekiko lan-, kontratu- edo funtzionario-harremanik, ezta beste edozein motatako harremanik ere, ez kontratuak irauten duen artean, ez amaitzean.